



2. Idatzizko ohartarazpena

Ohartarazpen mota hau I. Eranskinaren bidez egingo da. Irakasleak bete ondoren, bi kopia egingo ditu: bata, tutoreari utziko dio; bestea, ikasketa-buruzagitzan utziko du. Jatorrizkoa ikasleari emango dio, hurrengo egunean, irakasle horrekin eskola duenean, gurasoek izenpetuta itzul diezaion. Dokumentu hori irakasleak gordeko du.

3. Ikastetxeko zuzendaritza taldeak berehala ohartaraztea

Irakasleak ahalik eta lasterren ziurtatu behar du ikasleak benetan jo duela une horretan ikastetxearen ardura duen zuzendaritza taldeko edozein kiderengana.

4. Ikasketa-lanak egitea eta jokabide-arauak barneratzea jolasgaraian

5. Zeregin edo jarduera akademikoak egitea

Oharra: 3., 4. eta 5. puntuetan jasotako neurri zuzentzaileentzat, eta «31.1.m» artikulua aplikatzeko aukera dela eta, hartan jokabide desegokiaren behin eta berrizkotasuna aipatzen baita, beharrezkoa izango da dokumentu bidez jokabidea ez ezik, neurri zuzentzailea eta, hala egokituz gero, gurasoei egindako jakinarazpena ere frogatzea. Horretarako, honekin batera doan I. Eranskinaz baliatu ahal izango da irakaslea.

4.3. BIZIKIDETZAREN KONTRAKO JOKABIDEAK ETA HARI KALTE LARRIA EGITEN DIOTENAK ZUZENTZEKO OHIKO PROZEDURA

Ohiko prozedura erabiltzeko, beharrezkoa izango da *ekintzak nabarmenak izatea*, bai zuzendu beharreko jokabidea, bai *haien egilea*.

Prozedura hori *ofizioz hasi* eta *idatziz egingo* da, eta, gutxienez, *hasierako ekitaldia*, *ikasleak* eta, hala egokituz gero, haren gurasoek edo legezko ordezkariak *esan beharrezkoa entzutea* eta amaierako *ebazpena* izango ditu.